



2019KO ORIENTAZIO ARIKETA – BIDEA ORIENTAZIO TALDEA

Ondoz ondoko 15. urtez Gabonetarako orientazio-ariketa hau eskaintzen dizuegu. Gabonetako Jaiotza xume bat jarri dugu maparen puntuetako batean. Zeinetan?

Jakin nahi izanez gero hurbil zaitez Pagasarri mendira (**HASIERA** Iberdrolaren Larraskituko ate nagusia) eta maparen 4 puntuak bisitatu.

Puntuetan identifikazio-zinta bat egongo da, eta bertan EZ edo BELEN hitza idatzita. Jaiotzaren puntuan kutxatxo-postontzi bat egongo da, papertxo edo txartel bat utzi ahal izateko zuen izen eta dataekin, nortzuk eta noiz egon zareten ikus dezagun. Eskerrik asko!

NOLA IRITSI LARRASKITURA (Iberdrolako ate nagusia)? Bilbobuseko 72. lineako "Kiroldedia" eta 76. lineako "Iberdrola" geltokietatik oinez. Edo A8 linean, ate berean gelditzen dena (San Adrian 48).

NOIZTIK ETA NOIZ ARTE? 2019ko abenduaren 15etik 2020ko otsailaren amaiera arte.

MAPA: www.cobidea.com webgunetik koloreko mapa jaitsi dezakezue. Zuri-beltzeko kopiak eskuragarri egongo dira baita ere Miribillan, Bizkaiko Mendizale Federazioan, astearte, asteazken eta ostegunetan 19.00etatik eta 21.00etara; edo eta beste edozein ordu eta egunetan 6. solairuko iragarki-taulan.